

# Txupetea, aurreneko jostailua

I. Nogeraz

Jabier Agirre\*

**J**aiotzaren unetik lehenengo hortzak agertzen diren arte, haurtxoak zupatu edo hozka egiteko premia garatzen du. Premia fisiko nahiz psikikoa da hori umea lasaitu eta behar bezala garatzeko tresna egokiak behar dituena. Esnea da umeak bere bizitzako lehenengo hilabeteetan hartuko duen elikagai bakarra. Eta arrazoi bategatik edo besteagatik, egunero sarriago gertatzen da amak bere umeari bularrik ezin eman ahal izatea. Edoskitze artifiziala errealitatea da gaur egun, eta horrek asko indartu du amaren bularraren funtzioa betetzeko bereziki egokitutako biberoi

eta txupeteen ikerketa eta garapena.

Umeak sarritan sentituko du zupatzeko premia, eta horrek edozer gauza ahora eramatera bultzatzen du. Zupatzeko, eta sen hori lasaitzeko erabiltzen dira txupeteak. Aspaldiko gauza izan arren, tresna honek eduki behar dituen ezaugarriak, funtzionalitate, diseinu eta materialari dagokionez, eztabaidarako gai dira gaur egun.

## Bi jarrera kontrajarri

Oro har gaur egun merkatuan bi eratako txupeteak daudela esan



Umeak sarritan sentituko du zupatzeko premia, eta horrek edozer gauza ahora eramatera bultzatzen du. Zupatzeko eta sen hori lasaitzeko erabiltzen dira txupeteak.

Txupetea erabiltzea gomendatzeko moduko ohitura da, beti ere ondorengo puntak gordetzen badira:

1. Txupetea beti homologatua izango da.
2. Ur irakinetan esterilizatu behar da, edota horretarako farmazietan saltzen diren likido berezietan.
3. Ez da inoiz tetina azukrearekin edo eztiarekin gozatzeko, horrela umearentzat azukrea (glukosa) gehiegi ahortzen baita, eta horrek luzarora txantxarra sortuko luke.
4. Txupetea umea lasaitzeko, eta bere komenientziara, erabili behar da; ez gurasoen komenientziara. Beraz, umeak txupeterik nahi ez badu, ez da insistitu behar.
5. Ez da komeni umeak bi urte bete ondoren txupetea erabiltzea.
6. Txupeteak ez dira katea edo katekorratzetatik zintzilikatuko; lo dagoen bitartean umea ito egin baitaiteke lehenengoekin edota zulatu bigarrenekin.

daiteke: txupete bigunak batetik (gomazkoak guztiak, umeari min eman diezaioketen zati gogorrik gabekoak) eta txupete gogorrik bestetik (disco deformaekin bat dutenak, ume ez hain txikiak irentsi ez ditzaten).

Aurrenekoak leuntasunean oinarritzen diren bitartean, bigarrenetan segurtasuna da azpimarratzeko ezaugarria. Bi kontzeptu horiek, leuntasuna eta segurtasuna alegia, bazterrezinak dira maila teorikoan, baina praktikara etorri gero hortxe dago kokxa:



bi faktoreak elkarrekin nola ezkondu? Soluziorik onena disko zurrun bat erabiltzea da, baina beti ere forma egokia duena, umearen ahora egokitu eta minik eman ez dezan.

Bi material-mota erabiltzen dira batipat txupeteak fabrikatzen: kautxua edo goma eta silikona. Kautxua produktu naturala da, oso erresistentea, baina bere gainazala poroz beteta dagoelako bakterioak bertan kokatu eta ugaltzea errazten du. Silikona, berriz, produktu sintetikoa da, gardena eta guztiz atoxikoa, irakin ondorengo esterilizazioarekin batera aldatzen ez dena. Ez du urik zurgatzen eta erabat higienikoa da. Gaur egun, arrazoi estetikoak direla medio eta iraupe-ner ez oso egokiak direlako, silikonazko txupeteak arrakasta handia du.

## Hortzen mesederako?

Objektu horien forman ere ikerketak pauso asko eman ditu, beti ere aurrera begira. Amak beti nahi du bere umeak hortzagin politak, behar bezala kokatuak eta aho-sabaia ere inolako malformaziorik gabe edukitzea. Baina, esan al daiteke txupeteak aipatu baldintza horiek betetzen dituela?

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da txupetearen tetina material bigun eta malguz egina egotea, nahiz eta hausten zaila izan. Tetina gogorra baldin bada, edota barruan zati sendoak baldin badauzka, hotz-arkua eta aho-sabaia deformatu egingo ditu seguruenik.

Egindako ikerketen arabera, gaur egun tetina anatomikoa duen txupetea jotzen da gomendagarrirentzat. Halaber, umea forma horretara ohitzen dela azkarren ikusi da: bera baita amaren bularraren antz handiena duena.

Alemaniko Witten/Herdecke-ko Unibertsitateko hortz-klinikak egindako ikerketa batek emaitza bitxiak eskaini zituen: haurtzaindegira joaten ziren 2.500 ume aztertu zituzten, eta txupetea erabiltzen zutenak % 5 ziren bitartean (120 ume inguru), 8 aldiz gehiago ziren behatza zupatzen zuten haurrak (% 40, hau da 1.000 umetik gora). Sei urteko neska-mutilak aztertuz, berriz, txupetezaleak % 0,3 besterik ez ziren bitartean, behatz lodia zupatzen segitzen zutenak portzentaia oso altuan zeuden % 38, hain zuzen ere. Eta desberdintasun edo alde horien arrazoiak asko dira. Baina lehen-lehenik, ohitura "txar" hori uzteko duten zailtasunari begiratu behar genioke. Eta argi asko uler daiteke; txupetea edozein unetan "desagertzen" baita, baina behatza ez. Gainera umeak berehala asmatzen du behatza ahoan sartzeko modu diskretu bat, disimulatzeko ia-ia ezkutuan, adibi-

dez, eskua aurretik jarriz. Eta ohitura horrek ez du eskolako lagunen burla eta barre-algararik eragiten, txupetea erabiltzeak eragingo lukeen arren.

## Txupeteak ez al du kalterik egiten?

Gauza guztiak bere puntuan jartzeari komeni izaten da, eta hemen ere edozer gauza entzun ohi da hortik zehar.

- *Txupetea erabiltzeak hortz-desbiazioak sor ditzake.*

Txupete homologatuarekin hori ezinezkoa da ia, behar baino luzaroagoan erabiltzen ez bada behintzat (bi urtetik aurrera erretiratzea komeni da).

- *Txupeteak haizeak edo gasak sortzen ditu hesteetan.*

Hori ez da egia, gasak liseriketa txarraren ondorio izan ohi direlako, edota biberioaren tetinak oso zulo txikia duelako (eta horrek umea ahalegin handiak egitera behartzen du) edota biberioa postura desegokian jartzen delako (eta horrela, umea edaten ari dela airea sor daiteke).

- *Umeari, txupeterik ez zaio eman behar.*

Kontuz! Jaioberriari txupeterik ez ematea kalterako izan daiteke neurri batean, umea behatz lodia zupatzera ohitu baitaiteke, eta kasu honetan, garaia heltzen denean askoz ere gehiago kostatuko zaio ohitura hori uztea. Ez da hain bakana oheratzeko orduan behatza ahora eramaten duten pertsona helduak topatzea.



\* **Pediatra.**